

Pedagogiako Gradua



HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA

| DONOSTIA | SAN SEBASTIÁN |



HEFA Eraikin I, Tolosa hiribidea 70 20018 DONOSTIA (Gipuzkoa)
hefa.idazkaritza@ehu.eus hefa.practicum@ehu.eus

Pedagogiako Gradua

■ IKASKETEN DESKRIBAPENA

Pedagogiako titulazioak helburu bikoitza du:

- lehenik, ikasleei hezkuntza-gertaera oro har aztertzeko eta, era berean, hezkuntzako sistema eta prozesuen analisi, antolaketa eta garapenerako printzipioak ezagutzeko prestakuntza teorikoa eta praktikoa eskaintzea.
- bigarrenik, ikasleei jarduera-esparru jakin batzuetan (gizarte-, eskola- eta enpresa-esparruetan, besteak beste) lan egiteko gaitasuna emango dien prestakuntza praktikoa eta balioaniztuna eskaintzea.

■ SARTZEKO PROFILA

Tituluaren profila kontuan hartuta, Pedagogiako titulua atera nahi duten ikasleek honako arlo hauetan aldez aurreko gaitasunak edukitzea komeni da:

- Pertsonarteko erlazioak menderatzea
- Erantzukizunak eta erabakiak hartzeko gaitasuna
- Gizarte-ingurunearekiko errespetua
- Hezkuntza-arazoak konpontzeko gizarte-trebetasunak
- Gizarte-zientzien eta giza zientzien esparruko gaitasunak

■ IKASKETEN ANTOLAMENDUA

	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila	Guztira
Oinarrizko prestakuntza	30	30			60
Nahitaezkoak	30	30	30	6	96
Hautazkoak			24	18	42
Kanpoko praktikak			6	24	30
Gradu-amaierako lana				12	12
	60	60	60	60	240

■ TITULUAREN PROGRAMA

Pedagogiako graduako ikasketen antolamendua moduluko eskemari jarraituz egituratu da. Gradu hau zazpi moduluko osatua da; lauhileko bakoitzean modulu bat egingo da lehenengo hiru ikasturteetan, eta azken moduluak, laugarren ikasturtean.

Lehenengo ikasturteko bi moduluak eta bigarren ikasturteko lehenengo moduluak batera doaz Gizarte Hezkuntzako graduarekin.

Tabla 1. Cuadro resumen del plan de estudios: cursos, módulos, asignaturas y créditos

IKASTURTEA	MODULUA	IRAKASGAIK	ECTS
1	1M- Hezkuntza Testuinguruak		30
		Hezkuntza, Hizkuntza, Kultura eta Aniztasuna	6
		Estatistika Hezkuntzan	6
		Hezkuntzaren Historia	6
		Garapenaren Psikologia	6
		Hezkuntzaren Soziologia	6
	2M- Hezkuntza Lanbideak		30
		Hezkuntza Komunikazioa eta Harremana	3
		Giza Eskubideak eta Gizarte eta Hezkuntza Politikak	3
		Identitate eta Garapen Profesionala	3
	Hezkuntza Legeria eta Nazioarteko Ikuspegia	3	
	Pedagogia: Teoria eta Hezkuntza Erakundeak	3	
2	3M- Hezkuntza Prozesuen Oinarriak		30
		Didaktika Orokorra	6
		Hezkuntza Prozesu, Zerbitzu eta Erakundeen Antolaketa eta Kudeaketa	6
		Hezkuntza eta Gizarte Orientazioa	6
		Bazterketa eta Inklusio Prozesuak	6
		Hezkuntzaren Psikologia	6
	4M- Hezkuntza Ikerketa eta Berrikuntza		30
		Hezkuntzaren Diseinua eta Berrikuntza	6
		Ebaluazioa Hezkuntzan	6
		Hezkuntza Ikerketa	6
	Informazioa Biltzeko eta Aztertze Prozedurak	6	
	Informatika Baliabideak Hezkuntzan	6	
3	5M- Hezkuntzako Esku-hartzea		30
		Diagnostikoa Hezkuntzan	6
		Ezintasuna eta Inklusioa	6
		Talde mailako Esku-hartze Estrategiak	6
		Prestatzaileen Prestakuntza	6
		Hezkuntzako Esku-hartze Ereduak	6
		1. hautazkoa: Euskararen Arauak eta Erailerak	(6*)
	6M- Pedagogia Esparruak		30
		Practicum - I	(6)
		2. hautazkoa: Hezkuntza Aholkularitza eta Laguntza	(6)
		3. hautazkoa: Zailtasunak Ikaskuntzan eta Garapenean	(6)
		4. hautazkoa: Ekonomia, Hezkuntza eta Lana	(6)
		5. hautazkoa: Hizkuntzen Irakaskuntza eta Ikaskuntza	(6)
		6. hautazkoa: Komunikazioa Euskaraz: Hezkuntza eta Gizarte Arloak	(6)
	7. hautazkoa: Hezkuntzako Esku-hartzea Testuinguru Eleanizetan	(6)	
	8. hautazkoa: Lanbide eta Lan Orientazioa	(6)	
4	7M- Garapen Profesionala eta Praktika Pedagogikoa		60
	1. lauhilekoa	Practicum - II	24
		Hezkuntza Ekintzaren Teoria eta Praktika	6
	2. lauhilekoa	Gratu Amaierako Lana	12
		9. hautazkoa: Gaur Egungo Hezkuntza Euskal Herrian	(6)
		10. hautazkoa: Hezkuntzako Esku-hartzea Gatazken Ebazpenean	(6)
11. hautazkoa: Etengabeko Hobekuntza eta Ekintzailtza		(6)	
	12. hautazkoa: Osasuna eta Hezkuntza	(6)	

(*) Parentesi artean adierazitako kreditu kopurua hautazko irakasgaietako dagokie; ikasleek horien artean aukera egin beharko dute, 6. moduluan 24 kreditu eta 7. moduluan 18 kreditu eskuratzeko moduan.

240

Ikasleek euskaraz nahiz gaztelaniaz ikasi ahal izango dituzte tituluko irakasgai guztiak. Era berean, irakasgai batzuk beste hirugarren hizkuntzaren batean egiteko aukera ere izango dute.

■ MUGIKORTASUN-PROGRAMAK

Pedagogiako ikasketak Espainiako unibertsitateetan, Europako herrialde gehienetako unibertsitateetan eta Amerikako unibertsitate gehienetan irakasten dira.

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, Pedagogiako graduako ikasketak egiten diren fakultateak, UPV/EHUk sustatutako mugikortasun-programetan parte hartzen du: **SICUE-SENECA, ERASMUS, LATINOAMERIKA eta BESTE TOKI BATZUK.**

Programa, toki, araudi eta abarrei buruzko informazioa honako webgune honetan kontsulta daiteke:

<http://www.relaciones-internacionales.ehu.es/p274-home/eu/>

■ PRAKTIKAK

Lanbide-praktikak bereziki garrantzizkoak dira titulu honetan. Prestakuntza-programan nahitaezko bi praktikaldi bereizten dira: Practicum I, 6 kreditukoa, hirugarren ikasturtean; eta Practicum II, 24 kreditukoa, laugarren ikasturtean. Practicumaren xedeak bat datoz ikasketa hauen izaera teoriko-praktikoarekin, eta pedagogiako profesionalak lanean ari diren hainbat erakunde ezagutuz eta lanbidearen trebetasunak praktikaren bidez garatuz arlo profesionalera hurbiltzeko aukera emango diete ikasleei. Horretarako, fakultateak lankidetzat-hitzarmenak sinatu ditu ikastegi-, zerbitzu-, enpresa- eta erakunde-sare zabal batekin. Gaur egun, 300 erakunde baino gehiagorekin dauka fakultateak lankidetzat-hitzarmena sinatua.

■ ESKURATUTAKO GAITASUNAK

Pedagogiako graduduna ikasketak amaitutakoan eskuratuta izango dituen gaitasunekin gai izango da:

- Pertsonak, taldeak, testuinguruak eta erakundeak aztertzeko eta horien diagnostikoa egiteko, hainbat jardueraren arlo profesionaletan esku-hartze pedagogikoa finkatzeko eta bideratzeko.
- Garapen profesionalerako prestakuntza-proposamenak planifikatzeko eta antolatzeko, berrikuntza-planen eta programen garapenaren araberako premiei erantzuteko.
- Hezkuntzako prozesuak eta programak diseinatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko, askotariko testuinguruetan eta taldeetan, gizarteratzea, kalitatea eta berdintasuna oinarri hartuta.
- Hezkuntzako baliabideak eta erakundeak antolatzeko eta kudeatzeko, optimizazioaren bidetik. Pertsonen eta kolektiboaren hezkuntza-garapena eta gizarte-garapena sustatzeko materialak sortzeko, orotariko euskarrietan.
- Hezkuntza-arloko gaiei buruzko ezagutza kritikoa eskuratzeko, interpretatzeko, ikertzeko eta eraikitzeko, gai zientifiko, politiko, sozial eta etikoei buruzko gogoetan eta erabakietan iritzia eta orientazioa emateko, Giza Eskubideen ikuspegitik.
- Pertsonen artean harreman eta komunikazio horizontal eta enpatikoa sustatzeko baldintzak sortzeko, testuinguru eleaniztatan eta kulturantzatan gizarte-inklusioa sustatzeko (entzutea, negoziazioa, adostasuna eta desadostasuna, etika...).
- Publiko espezializatuentzat eta ez-espezializatuentzat irizpide zientifiko eta sistematikoen araberako proposamenak lantzeko eta argudiatzeko, idatziz nahiz ahoz, erabakiak hartzeko prozesuak errazteari begira.
- Ikaskuntza-trebetasunak, trebetasun pertsonalak, gizarte-trebetasunak eta lanbide-trebetasunak garatzeko, pedagogoa askotariko lanbide-arloetan txertatzeari begira, autoenplegua barne hartuta.

■ GRADUDUNAREN AMAIERAKO PROFILA

Pedagogiako gradudunaren profila honela definitzen da:

- Pedagogiako gradudunak esku-hartze pedagogikoa, prestakuntza, ebaluazioa eta baliabideen kudeaketa gauzatzeko prestakuntza profesionala izango duen hezkuntza-arloko aditua izango da. Bere egitekoa erakunde-, gizarte-, kultura- eta lan-arloetan giza eskubideen errespetuan oinarritutako hezkuntza inklusiboa, eleanitza, komunitarioa eta pertsonen bizi osoan zeharreko gizarte-ongizateari begirakoa gauzatzera zuzenduta egongo da.

Gradudunaren prestakuntza honako lan-arlo hauetan garapen profesionala lortzera bideratuko da: hezkuntza arautua, hezkuntza ez-arautua, justizia, bitartekaritza, teknologia berriak eta hedabideak edo/eta ikus-entzunezkoak, erakundeak eta enpresa, sustapen ekonomikoa eta okupazioa, osasuna, zerbitzu pertsonalak, gizarte eta kulturako zerbitzuak, eta gizarte eta hezkuntzako zerbitzuak.

■ LAN-MUNDUAN SARTZEA

Pedagogoen profil profesional nagusien artean, honako hauek dira nagusiak:

- Aholkulari pedagogikoa (Entzumena eta Hizkuntza, Pedagogia Terapeutikoa,...)
- Birgizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko programen aholkularia
- Aholkulari pedagogikoa
- Erakundeetako prestakuntza-arloko aholkularia eta kudeatzailea
- Esku-hartzeko talde pedagogikoen koordinatzailea
- Babespeko zentroetako edo espetxeetako programen koordinatzailea
- Giza Baliabideen edo prestakuntzaren saileko zuzendaria
- Ikastetxe eta hezkuntza-erakundeen zuzendaritza
- Irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuen diseinatzaile, aholkulari eta ebaluatzailea
- Baliabide didaktikoen, teknologien eta multimedia baliabideen diseinatzaile, aholkulari eta ebaluatzailea
- Hezkuntzako material eta testuen diseinatzaile, aholkulari eta ebaluatzailea
- Irakaslea
- Ingurumen-hezitzailea
- IKTetan aditua
- Diziplinarteko esparruetan aditua (diziplinarteko taldeak, Berritzeguneak)
- Aniztasunaren hezkuntza-arretan aditua
- Osasun-hezkuntzan aditua
- Kontsumorako hezkuntzan aditua
- Garapen komunitarioan eta hiriaren garapenean aditua
- Familia-hezkuntzan aditua
- Gizarte-arloko esku-hartzeetan aditua
- Hezkuntzako eta prestakuntzako sistema, erakunde, politika eta programen ebaluatzailea
- Prestatzaileen prestatzailea
- Pertsonen prestatzailea
- Kudeatzaile sozio-kulturala
- Gizarteratze-prozesuen eta aniztasunaren kudeaketa
- Lan-taldeen kudeaketa
- Prestakuntza-kudeaketa
- Programen kudeaketa
- Hezkuntza Administrazioiko ikuskatzailea/gainbegiralea
- Hezkuntza-prozesuen ikertzailea
- Bitartekaria (enpresa, espetxea, komunitatea, eskola, familia...)
- Orientatzailea (pertsonala, akademikoa, profesionala, familiara eta lan-arlokoa)
- Birgizarteratze-programetako esku-hartzeen teknikaria
- Hezkuntzako edo/eta prestakuntzako programen diseinu, ekoizpen, garapen eta ebaluazioko teknikaria
- Kalitatearen kudeaketako eta aldaketa-prozesuetako teknikaria
- Jakintzaren kudeaketako teknikaria
- Erakundeetako prestakuntza-teknikaria
- Lanbide-garapenaren orientazio-teknikaria

■ EZARPEN-KRONOLOGIA

Pedagogiako graduko titulua era mailakatuan ezarriko da:

1. maila, 2010/11
2. maila, 2011/12
3. maila, 2012/13
4. maila, 2013/14